


Astekaria

# BARRREN

elgoi



Carmen Perea,  
brontzezko domina 800 metrotan,  
Espainiako txapelketan



*Erakusketa zuzenbide  
berri honetan:*

Santa Ana 3  
Tfnoa: 74 36 34

- "Rotura de Puente Termico" dun leihoak edozein koloretan.
- Bainu manparak
- Ofizinak banatzeko manparak
- Aluminio eta PVCzko pertsianak

## 3 LAU HANKATAN

" Erabakita neukan BARREnerako gehiago ez idaztea".

Hasier Etxeberria

6 **ERREPORTAIA:** IRAKASKUNTZA HAUR ESKASIAREN GAITZAK JOTA DAGO  
60. hamarkadan *baby boom* izendatu zutenaren kontrakoa gertatzen ari dela esan daiteke. Jeitsiera honetan irakaskuntza da lehen biktima.

8 **ARRAZOIAK ERDIBANA:** IRAKASKUNTZA PUBLIKO ALA PRIVATUA?  
**Iñaki Odriozola:** "Dena saldu eta erosi daitekeen gizarte honetan ia normala iruditzen zaigu gure umeen hezkuntza ere(...) ordaindu behar izatea"

**Pedro Arosa:** "Gure seme alabentzat hezkuntza hobereana aukeratzeko eskubidea dugula uste dut eta nire jarrera hezkuntza pribatuaren aldekoa da."

## 12 BERBETAN

"Oraingo lanarekin askosaz gustorago nago". **Luis Gomez.**

## 14 KIROLA:

GAIA: ELGOIBARKO TXIRRINDULARIAK DATORREN DENBORALDIRAKO PREST  
ELKARRIZKETA: **Carmen Perea:** BRONTZEZKO DOMINA 800 METROTAN

## 16 ELKARTEETATIK BUELTRAN

KONPORTA: EDOZERTARAKO ZABALIK DAGOEN ELKARTEA

## 17 KULTURA

ANTZERKI TAILERRAK LEHEN URRATSAK EMAN DITU

TXANDAK

### FARMAZIAK:

- 27, larunbata: ORMAZABAL
- 28, igandea: ORMAZABAL
- 29, astelehena: ETXEBERRIA
- 30, asteartea: ETXEBERRIA
- 31, asteazkena: ETXEBERRIA
- 1, osteguna: ETXEBERRIA

2, ostirala: ETXEBERRIA

### OKINDEGIAK:

28, igandea: ZABALETA



## PREMAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa) .....	743936
Odol Emailen elkarte.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua...	742158
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



**L**AU HANKATAN



Hasier Etxeberria

# Urruntasunaren eragina

**E**rabakita neukan BARREnerako gehiago ez idaztea. Zer arraiotan nabil ni hilean behin, hainbeste kilometrotara argitaratzen den astekari batera idazten? pentsatzen nuen nereko.

Egunkari, aldizkari eta beste motatako empresa askotarako idazten ohituta nago. Egia esan ez zait gehiegi kostatzen. Nere lagun panadero batek ogia egiten dakiela esaten du, ez besterik. Neu ere antzerako. Txikitandik ez zait beste ezer egitea gustatu idaztea ez bada. Eta gaizki edo ondo, hemen dihardut tirriki-tarraka, ahalegina egiten.

Baina kakoa, ez dago hor. Beste leku batean dago. Nere gaitasunak edo, aldiz, trebezia faltak ez dauka zer ikusirik. Arazoa urruntasunean dago. Distantzia. Hara, argituko dizuet.

Elgoibartik hurrun bizi naiz. Ehun kilometro baino gehiago badira tartean baina, gainera, urruti, oso urruti ibili naiz egun batzutan, zirimiririk egiten ez duen leku batean. Han, oinutsik dabil oraindik jendea eta begietako diztira beti present daukate. Erotu egin naute. Nere irudimena, jakituria apurra, estiloa, adjetiboak... denak bahitu eta

sekuestratu dizkidate. Arima harrapatu didate. Hona etorri banaiz ere, han nago oraindik, hango lagunekin, hango ur urdinetan, hango belarretan etzanda. Eta hala ere BARREnerako idatzi behar. Arraio Pelaio!

Gainera oporretan ibiltze honek, argiari bidea zabaltzen dio garunetan eta BARREN zernolako aldizkaria den aztertzeke astia euki dut ustegabeen. Astekari hurbila, horixe da BARREN. Hurbil hurbilekoa. Sukalde bertakoa, egongelan dagoen landarea bezain etxekoa. Eta zer egiten dut nik halako leku batera idazten? Zer esan behar diet nik hain urrutitik nere herritarrei? Bertara joaten naizenetan ikusten ditudan akats apurak adierazten hasi behar dut? Ez, hori ez. Beraiek nik baino hurbilago dituzte arazoak. Nik baino gehiago dakite horretaz. Politikaz hitzegin behar dut? Ez eta pentsatu ere. Horretaz denok gaude kokoteraino. Zertaz? Filosofiaz, pentsamenduaz? Horretarako filosofoa izan behar eta ni ez naiz halakoa.

Nekaturik eta harrapatata, urruti bizi den elgoibartar batengan urruntasunak sortzen duen kezkarri buruz idaztea erabaki dut, azkenean.

- Argitaratzailea**  
Elgoibarko Izarra  
Kultur Elkartea  
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**  
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**  
Itziar Agirregomezkorta  
Alberto Agirreazaldegia
- Hizkuntza Arduraduna**  
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**  
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**  
Maite Rementeria
- Publizitatearen diseinua**  
Luis Mari Zubiaurre  
Maite Rementeria
- Publizitatea**  
Amaia Leiaristi
- Kolaboratzaileak**  
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Sagundo Raigoso, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.
- Banaketa arduradunak**  
Imanol Larrañaga  
Inaxio Garmendia
- Helbidea**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12
- Inprimategia**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**  
3.000 ale
- Lege gordailua**  
SS-1.038/92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**ari ONGIETORRIA,**  
**martxoak 31, asteazkena,**  
**gaueko 10etan**  
**SIGMAKO ZUBIAN.**

*Denok maite dugu gure herria*  
**EUSKARAZ**

**Fotero**  
**OKINDEGIÀ**  
**OPILDEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**Rifak direla eta**

Beste askotan bezala, gaur ere "rifa" bat saldu didate. Beste askotan bezala, herriko gazte batzuk zirela eta, ez dut begiratu zer eta zertarako zen txartela.

Orain bertan begi bistan dut eta zenbait gogeta egiteko parada ematen dit.

1- Euskaraz beti bezala, erruak edo hanka sartzeak: Viaje de estudios = ikas bidaia eta ez Estudio bidaia.

2- Ez da agertzen nortzu antolatzen duten bidaia ez eta noski, zozketa.

3- Sariak, epeak, zozketa lekua eTab. agertzen dira, baina nire ustetan detaile garrantzitsu bat falta da: non agertuko dira ateratako zenbakiak?

Beti bezala, gehienok ez dugu jakingo emaitza eta etxeko txokoren batetan galduko zaigu txartela.

Iruditzen zait, hemen dik aurrera, gure herrian egiten diren honelako ekintzek badutela BARREN aldizkarian leku aproposa. Ea ba antolatzaileek begirune pizka bat agertzen duten erosle edo bezeroekin eta, adibide gixa, hor TXANKAKUA elkarteak, Gabonetako zozketarekin egin zuena.

**M. P.**



**KORRIKA 8**

Euskararen aldeko ibilaldi ezaguna AEKk aurrera eramandakoa, hilaren 26an Iruñean hasi eta Bilbon apirilaren 4ean bukatuko da, Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren. Elgoibartik, hilaren 31an, asteazkena, gaueko 10etan igaroko delarik.

Aurten KORRIKAREN lema hauxe izango da: DENOK maite dugu gure herria EUSKARAZ, ezaugarri kultural eta kirolariak izango dituelarik. Gogoratu nahi duguna zera: EUSKARA denaren gainetik dagoela eta egun hauetan bakoitzaren pentsamoldeak alde batetara utzi behar direla, denok bat eginik arrazoi soil batengatik: GURE EUSKARA.

Hizkuntzak adierazten du herri baten nortasuna. Hizkuntzarekin batera doaz, izakera eta hezikera: KULTURA.

Honekin lortu nahi duguna zera da: gure HIZKUNTZA, kalean, lanean, etxean... erabiltzea, geurea den zerbait bezala onartzea. Ez dugu ahaztu behar gure hizkuntzak igaro behar izan dituen trabak historian zehar, eta gauzak hobetu diren arren, oraindik bide luzea geratzen zaiola.

Euskal Herriko neska-mutilak, gizon-emakumeak, EUSKARAREN alde ipintzeko, giroa sortu behar dugu, motibazioa handitu bihotzak gogoberotuz.

Bihur gaitezen denok gure HIZKUNTZAREN aldeko langile. Maita dezagun gure EUSKARA, bera dena baita: gure mendiak, gure herriak, gure ibaiak, gure kultura... EUSKARA denona eta denontzat delako. Ez ahaztu! DENOK har dezakegu parte! EUSKARA gure helmuga da. Zuen zai egongo gara hilaren 31an, gaueko 10etan SIGMAKO ZUBIAN.

**AEK Euskaltegiko talde bat.**

**Hertz**  **Autobusak**  
**Rey Quiroga**


GIDARIRIK GABEKO AUTO ETA FURGONETAK ALOKATZEN DITUGU

BILKETA-BANAKETA ZERBITZUA:  
**EIBAR, ERMUA, BERGARA, ARRASATE, ZARAUTZ, DEBA, ONDARROA ETA AZKOITIA**




**PREZIO BEREZIAK KONTSULTA ITZAZU**

ERRESERBAK EGITEKO:  
 TFNOAK: (943) 74.36.50- 54 FAX: (943) 74.38.93



**TXOKO ATSEGIN ETA DOTOREAK**  
**LODOSO LEIHOAK**  
 Ermuaranbide 16, Tel: 74 34 90



CIANGUIREN

**A**ste honetako erretratu zaharra **Jone Ajuriak** laga digu. Erretratua Lerungo futbol-zelaian 1944. urtearen inguruan ateratakoa da.

Gaizki ulertzerik egon ez dadin, C.D.Elgoibar taldeko ekipo titularra ez dela hasieratik esatea komeniko da. Izango ote zuten hauek futbolista itxura hobetik!

Erretratua San Kasimiro egunean (orduko sastreen eguna) Elgoibar eta Eibarko sastreek elkarren kontra jokatzen zuten futbol-partidu aurrekoa dugu. Esan digutenez, egun hau aprobetxatzen zuten bi herrietako sastreen abileziak belar gainean erakusteko.

Ez gara futbol-partiduak kalitate onekoak ziren ala ez juzgatzen edota nork irabazten zuen esaten hasiko. Benetan interesatzen zaiguna eta zeharo harritzen gaituena zera da: sastreen arteko lehia izanik hain arropa

eskasak nola dituzten soinean.

Azkenik, konturatu al zarete denak abarketekin daudela? Oinetako horiekin eta baloia ikusita, hankak handi handi eginda etxeratuko zen bat baino gehiago!

Bukatzeko, ikus dezagun zeintzuk osatzen zuten hamaikako titularra (hamabi badaude ere):

Tente, ezkerretik hasita: Jesus Ajuria, kanpotarra, kanpotarra, Etxaniz, kanpotarra, kanpotarra, kanpotarra eta Roman Garate.

Makurtuta: kanpotarra, Ziriako Garate, Luziano Ezenarro eta kanpotarra.

Ikusi duzuen bezala, kanpotarrak fitxatzeko joera aspaldiko kontua da!

Pasa den asteko erretratu zaharrean esandako gauza bat zuzendu nahi dugu: Maria Kristina Garcia, Sallobenteko maistra Gelatxorrota baserrian bizi da eta ez Donostian, guk esan genuen bezala.

**EKAINEKO DEIALDIAK**



**UNIVERSITY OF CAMBRIDGE  
PRELIMINARY ENGLISH TEST**

P.E.T. Centre ES406

**Azterketan matrikulatzeko azken egunak.**



**UNIVERSITY OF LONDON**

**Matrikulazio epea: Martxoak 29 - Apirilak 2**

**KENSINGTON**



Pedro Muguruza 8  
Elgoibar  
Tel: 74 02 36

# Irakaskuntza haur eskasiaren gaitzak jota dago


Gaur egungo gizartean gailendu diren balore sozialek, langabeziak eta beste zenbait faktorek jaiotze tasaren joera beheranzkoa izatea ekarri dute. 60. hamarkadan *baby boom* izendatu zutenaren kontrakoa gertatzen ari dela esan daiteke. Jeitsiera honetan irakaskuntza da

lehen biktima. Beraz, gero eta haur gutxiago dago eta ikastetxeek dauden horiek beraien artean banatzearekin konformatu behar izan dute. Ondorengo grafikoetan jaiotze tasaren joera eta horrek Elgoibarko irakaskuntzan izan duen eragina azaltzen saiatuko gara.

**L**ehen grafikoak erakusten duen joera ikastetxeek 1982-1992 urte bitartean hartu zuten ikasle berrien kopuruaren jeitsieran isladatzen da. Zenbait ikastetxek beste batzuk baino nabarmenago igarri


dute jeitsiera hori. Ikastetxe bakoitzean gela gutxiago dago orain, baina sasoi batean gela bakoitzean 30 haur egotea normala bazen ere orain gela bakoitzean 23-25 haur dago gehienez.

Jaiotze tasaren jeitsie-



1. GRAFIKOA

IKASLE BERRI KOPURUA IKASTETXEKO



2. GRAFIKOA



Jaiotzen jeitsierak aldaketak sortarazi ditu ikastetxeetan.


rak ez du oraindik irakasle kopuruan eraginik izan. Ikastolak aspalditik ez du kontratu fijoarik egin eta Pilar ikastetxean orain arte zeuden irakasle kopuru berbera mantentzen da. Urasandi eta Pedro Muguruza ikastetxeetan, berriz, irakasle gutxiago dago azken urteotan. Kurtso honetan irakasle kopuru eskasa dela eta, Urasandi eta Pedro

Muguruza ikastetxeak batu egin dira eta Herri Eskola deritzona sortu da bertatik.

Haur kopuruaren jeitsierak inestabilitate handia sortu du lanpostuetan eta horrek, noski, ikastetxe ezberdinen arteko kompetentzia sortu du.

**Euskararen aukeraketa**

Azken urteotan euskarazko irakaskuntzaren



aldeko apustua egin dute Elgoibarko ikastetxeek. A ereduak, irakaskuntza gaztelaniaz ematen duena, euskara asignatura delarik, sekulako beherakada izan du . 1990. urteaz geroztik, Pilar ikastetxean ez da A ereduan irakasten eta Herri Eskolan goi zikloan bakarrik mantentzen da. Hala ere, B ereduak, gaztelania eta matematikak ezik euskaraz ematen dituenak, kurtsoz kurtso aurrera doan heinean A ereduak desagertuz joango da. Pilar ikastetxean B ereduak O.H.O.n nagusitu da jadanik eta Herri Eskolan

ere oso zabaldua dago. Ikastolan D ereduak ematen da maila guztietan eta Pilar eta Herri Eskolan D ereduak eskolaurrean ematen da. Datoren urtetik aurrera, Herri Eskolan matrikulatzen direnak, O.H.O. osoa euskaraz hutsez egiteko aukera izango dute, gurasoek hala aukeratuko balute. Beraz, euskaraz ikasteko aukera askoz zabalagoa da orain, duela 10 urte baino. Izan ere, gaztelania hutsezko irakaskuntza desagertu egin da edota desagertzeaz dago.

**ZALDUA**  
**ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU**  
**INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

**ASGI**

taberna

Urasandi 1,2.zbk  
tel: 74 28 38

**INTERIORES**

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

**PUB**

**ELGOIBAR**

# Irakaskuntza publiko ala pribatua?

**Dena saldu eta erosi daitekeen gizarte honetan ia normala iruditzen zaigu gure umeen hezkuntza ere, beste edozein produktu balitz bezala, ordaindu behar izatea.**



**H**alere, gaia sakonduz gero, konturatzen gara hezkuntzaren, eta berarekin lotua dagoen irakaskuntzaren eremua oferta/demandaren ikuspegitik begiratzeko baino askoz ere inportanteagoa dela gure bizitzan.

Nere ustez, hezkuntza gizakiak duen eskubide nagusienetarikoa da eta horrela hartzen badugu, merkatuaren eskuetatik atera behar dugula deritzot. Esan nahi dut: alde batetik, eskubidea denez gizaki guztiei dagokiena dela, beraz, dohainik eta nolabait, derrigorrez, eta bestetik, kalitatezko zerbitzua behar duela, (eta zerbitzuaz ari naiz zeren edukinak, berdinak dira eskola guztietan) zerbitzu erakargarria hiritarrentzat, hau da, ondo lan egiten dakiten irakasle prestatuekin, teknika berriak ikasi eta lantzeko denbora eta gaitasunaz, eraikuntza berri eta gela berezi eta aurreratuekin, egitura eta funtzionamendu demokratikoekin, eskolaz kanpoko ekintzekin, inguruko giroa eta ezaugarriekin bat datorrena (zehazki, gure kasuan, euskalduna), plurilinguismoa bideratzeko kapaza e.a. Eta zerbitzu (erabat defizitario) hau, gizarte osora hel dadin gure

eskubide den heinean administrazio publikoaren nahi-taezko betebeharra da.

Eskola pribatuak, berak kalitatea eman dezakela dio, baina gutxienez onartu behar, ez dela guztientzat, dirua dutenentzat bakarrik baizik. Gainera kalitate hori guztia murriz dezakeen baldintza ekonomikoen menpe beti dagoenez, (hezkuntz aktibitate eta ajente guztiak erretagarritasunaren arabera neurtu behar dituzte, sakonean, urtearen bukaeran, enpresak jarraitu nahi badu) ez dut ikusten kalitate horren inguruan marketina besterik, hots, beraien "produktua" oso ondo "saltzen" dakitela, nahiz eta, sakonean hezkuntz prozesuaren egonkortasunerako ere eredu pribatu hori ez den oso egokia, edozein momentutan itxi baitaiteke zorrak medio.

Guk, hiritarrok, eta horretarako ordaintzen ditugu zergak, administrazioari exigitu behar diogu, eta hori bai izango dela luze eta neketsua (begira bestela Euskal Eskola Publikoaren Legeari buruzko eztabaida), kalitatezko irakaskuntza publiko hori eta hezkuntza zerbitzu osoa gauzatu dezan. Denon eskubidea da.

**Iñaki Odriozola**



**Pertsona guztiek eta gurasoek batez ere, dagokien askatasuna dela medio eta, gure seme-alabentzat hezkuntza hoberena aukeratzeko eskubidea dugula uste dut eta nire jarrera hezkuntza pribatuaren aldekoa da.**

**E**torkizunari begiratu ez gero, lehengo planteatu behar duguna zera da: zein hezkuntza mota nahi dugun geure umeentzat eta nire ustez lehendabizi kalitatezkoa izan behar dela pentsatzen dut gaur egun ezartzen ari den erreformari egokitua.

Pribatuak eskaintzen digun kalitate hau bi helburu nagusiz osaturik dago: hezi eta erakutsi. Haurrak erabateko pertsona egitea nahi du eta horregatik ez du bakarrik gaien mamia kontutan hartzen, bihar-etzi gizon-emakume jatorrak izateko behar diren baloreak baizik, batez ere erlijioak erakusten digun maitasunezko eta besteenganako errespetuzko bizimodu bat haurrengan garatuz.

Horrez gain, beste alternatiba asko eta asko betetzen ditu pribatuak: iritzi ezberdinak dituzten pertsonak, beren haurrak beraiei dagozkien ikastetxeetara eraman ahal izatea; baita ere, hizkuntza ezberdinetan ikasketak egitea nahi dutenentzat (fran-

tsezez, alemanez, ingelesez...). Uste dut eskaintza hau derrigorrezkoa dela gaur egun bizi garen gizarte plural honetako beharrak betetzeko. Aukera hauek edukiz gero guraso bakoitzak pentsatuko du zein hezkuntza mota eman bere haurrei, zeren eta gizakiak duen askatasuna ez da bakarrik ideia ezberdinak edukitzea, ideia horiek praktikan jartzea besteenak errespetatuz baizik.

Alde horretatik guraso guztiek nahi duten aukera hartzeko, laguntza materiala jaso behar lukete, ez intuzioiek ezartzen dituzten proposamenentzat bakarrik, beste guztientzat ere bai; kontutan harturik hezkuntza denon artean ordaintzen dugun zerbitzu bat dela.

Horrela ba; uste dut irakaskuntza pribatuak aukera bat ematen digula geure umeak behar den bezala hezitzeko; beraien hezkuntza gure ardurarik handiena dela ulertuta.

**Pedro Arosa Ansola**



**E**TA ZURE USTEZ?

# Irakaskuntza publiko ala pribatua?



**Gloria Santiago**

41 urte, etxeoandrea

Publikoaren alde nago. Guztiok aukera berdinak izan behar ditugu eta diruak ez du zertan irakaskuntza baldintzatu behar.



**Maria Jesus Iruretagoiena**

45 urte, etxeoandrea

Nik semea eskola publikoan eduki dut eta alaba Ikastolan. Eta oso pozik nago biek jaso duten irakaskuntzarekin. Ezin dut esan bata ala bestea nahiago dudanik.



**Anjeli Kortabarria**

38 urte, etxeoandrea

Nik neure semea Ikastolara eruan behar dot orain. Publiko ala pribatua den ez zait inporta. Ondo jun ezkeru berdin jat publiko ala pribatua izan.



**Vicente Balada**

37 urte, forjako langilea

Pribatuaren alde nago. Publikoan gutxiago ikasten da; konprobatua dago. Semea eskola publikoan duen lagun batengandik ikusi dut. Pribatuaren kalitatea altuago da.



**Pablo Uribetxebarria**

40 urte, metalurjiko

Ez nago gai honetan oso sartua. Nire seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi dut. Eta irakaskuntzak guztiontzat izan beharko lukeela uste dut.



**Arrate Armendia**

31 urte, irakaslea

Pribatueta egiten dut lan eta beti Aldatzen ibili naiz eta hori da ezagutzen dudana. LOGSE jarri gabe dagoenez oraindik ez dira abantailak igartzen. Baina ni pribatuan nago gustora.

**EIBAR**

**OSASUNDEGIA**

- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

Urkizu Pasealekua, 11.

(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).

Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

**I  
L  
E  
A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A**

**FADEK**  
SOLARIUM

Erosario Kalea, 35 behe  
☎ 74 26 92 Elgoibar

## 2.000 familiak eman du dirua Elizako obrentzat

Duela hilabete hasi zuen Parrokia Berritzeko Obren Komisioak herriko familiei zuzenduriko diru-bilketa kanpaina. Elgoibar osatzen duten 3.400 familietatik, 2.000ak eman du Eliza konpontzeko diru-laguntza. Elizako obren gastuak 100 milioitik gorakoak izango dira.

Obren Komisioa kideek diru-bilketa kanpaina burutzen lagundu duten guztiei beraien eskerrona luzatu nahi die, hala nola, dirua biltzen ibili diren 220 zeladora eta laguntzaileei, Santa Klarako monjei, Danobat lantegiari eta orohar herri osoari.

## Txankakuaren kanpaina berria kalean

Elgoibarko Txankakua elkarteak, Udaberri-Uda izeneko kanpaina antolatu du. Martxoaren 30ean hasi eta maiatzaren 30 arte iraungo du kanpaina honek. Txankakuako kideek, ekainaren 4ean notario aurrean egingo den zozketan parte hartzeko txartelak banatuko dituzte beraien bezeroen artean. Sariak, 35.000 pezetako 6 erosketa txartel izango dira, irabazleek Txankakuako dendetan gastatu ahal izango dituztelarik txartelok.



30 pertsonak parte hartu zuen pasa den asteburuan Morkaikok antolatutako Picos de Europara irtenaldian. Eguraldi ona izan zuten baina elurra, ugari eta biguna egotean igoaldia nahiko gogorra izan zen. "Mendizale" batzuk nahiago izan zuten turismoa egin edo bizikletan ibili mendi gailurretara igo baino. Igandean, Ruta del Cares burutu zuten, Poncebotik Cainerako bidez eginez.

## 16 errelebu egingo dira aurtengo KORRIKAN

KORRIKAREN etorrera ospatzeko egun batzu falta diren arren, aste gutzian zehar hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko AEKK giroa epeltzeko. Astearte iluntzean "Maskarada" taldearen Kontrabaxua izeneko antzezlanak ikusi ahal izan genuen Kultur Etxean. Bi egun beranduago, ostegunean, eta toki berean, Txomin Artolak kantaldia eskaini zuen. Giroa, beraz, guztiz bero egongo da datorren asteazken gauean KORRIKA 8. ari ongiatorria emateko. Sigmako zubian hasita, KORRIKA Santa Ana kaletik beherantz, Maalako parkeraino helduko da. Bertan buelta emango du herritik gorantz, Txanka-

kuako zubitik Markina alderantz abiatzeko. Lehen errelebua Saturixon egingo da eta testigua Txankakua elkarteok hartuko dute. Errelebutan parte hartuko dute herriko erakunde eta talde ezberdinek, langileek eta eskolek. Dena den, edozein herritarrek har dezake parte testigua daramatenen alboan korrika egiten. Azken errelebua Baltasar, Herri-Gain eta Kimetz elkarteek egingo dute Geminis lantegi parean.



**UDA BERRI**  
**ELGOIBAR**

**NORBERTO ZABALA**  
**PINTURAK**

---

Errosario 32. Tel: 74 08 45.  
**ELGOIBAR**

**PAGOAGA, S.A. Iturgindegia**

ITURGINTZA LANAK, BEROGAILUAK, AIRE ETA IGELTSARITZA INSTALAKUNTZAK

**BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:**  
San Antolin kalea, 13  
Tel: 74 02 79- 74 05 12  
Fax: 74 35 65

**ERAKUSKETA:**  
Pedro M. Urruzuno kalea, 8  
Tel. 74 38 44  
20 870 ELGOIBAR

## Hilabete barru aterako da Feijoo intsumisoaren sententzia

Rafa Feijoo intsumiso elgoibartarrari hilaren 16an Valentzian egindako epaiketaren sententzia datorren hilabetean emango da jakitera. Ordu laurden baino iraun ez zuen epaiketari, fiskalak 6 hilabeteko gartzela zigorra, 3 hilabete eta egun bateko gartzela zigorrera aldatu zuen. Talde Antimilitaristako ordezkariak prentsaurrean adierazi zutenez, sententziak Rafa zigortuko balu, errekurtsioa aurkeztuko lukete baina fiskala eta epailearen jarrera ikusita errekurtsioak aurrera egiterik ez lukeela izango gaineratu zuten Seguruenik Rafak



beste epaiketa bat izango du eta horrela balitz, Talde Antimilitaristak Donostiako epaitegiak kasuaren ardura hartzeko eskatuko du. Epaiketa honetan aurrekoan baino autoinkulpazio gehiago jartzeko asmoa zutela adierazi zuten Elgoibarko intsumisioen ordezkariak.

Bestalde, Rafaren alde egindako ekintzak oso positibotzat jo zituzten. Herriko erakundeen aldetik Talde Antimilitaristak jasan duen marjinazio eta errepresioa salatu zuten eta intsumisioari buruzko informazioa edonori ematen jarraituko dutela gaineratu.



AZKUE

## Irakaskuntza-lege berriei buruzko saioak Ikastolan

Euskal Eskola Publikoaren eta Irakaslegoaren legee buruzko informazio saioak antolatzen hasi da Elgoibarko Ikastola. Izan ere, Ikastola guztiek aurtengo maiatzaren 25erako erabaki beharko dute sare pribatuan geratu ala publikora aldatuko diren.

Martxoaren 8an eta 15ean, EILAS, ELA eta LAB sindikatuen eta Ikastolako langileen arteko saioak izan ziren. Martxoaren 23koa, Ikastolen Ekartearen eta guraso eta langileen artekoa eta, 24koa, Hezkuntza Saila eta guraso eta langileen artekoa.

Apirilaren 1erako, alderdi politikoekin mahai inguru bat antolatu du Ikastolak, bertara, EAJ, EA, HB, PSE eta EUEri deitu zaielarik.

Argazkian martxoak 23ko bilera.

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

**Autoedizio eta Diseinu Grafikoa**



Sta. Klara 40-3. Tel: 744444.

**"Oraingo lanarekin askozaz gustorago nago"**

**Luis Gomez Plaentxiarra da, baina duela urte batzuk Elgoibarren dago lanean. Orain Maalako kioskoa hartu du, tabernako**

**iskanbila alde batera utzi eta egunkari artean sartzeko. Hona hemen berarekin izandako solasaldian kontatu ziguna:**

**-Noiz eta zergatik hartu zenuen kioskoa?**

Orain dela urte batzu hartu nuen lan hau. Lehenago taberna batzutan egon nintzen lanean, baina aukera hau irten zitzaidanean, etorkizuna finkatzeko era egokia zela pentsatu nuen.

**-Zertan aritu zinen kioskoa hartu baino lehen? Non gustorago?**

Haseran, fruteria batetan egon nintzen lanean. Bilbora joan, merkantzia hartu eta Mungiako denda batzutan banatzen nuen. Gero, kamarero lanetan, Tiroriro eta Ametsa tabernetan egon nintzen eta beste hainbat tabernatik ere deitu ninduten. Baina dudarik gabe, oraingo lanarekin askoz gustorago nago. Norberarentzat lan egiteak abantaila asko ditu, etekin gehiago lortu dezakezu eta ez zaude inoren menpe. Guzti honek baditu bere alde txarrak, noski. Lan gehiago egin, oso goiz jaiki beharra eta jai egunik ez. Lan gogorra da.

**-Plaentziarra izanik, arazorik eduki al duzu bezeroak lortzeko orduan?**

Normala den bezala,



**"Nahiz eta momentu hau txarra izan, beti dago lana. Jendeak etortzen jarraitzen du".**

kioskoa hartu nuenean, bezero batzu galdu nituen baina nire ustez gehienak mantendu ditut eta berriak lortu ere bai.

**-Jendeak oso gutxi irakurtzen duela esan ohi da. Zer diozu honi buruz?**

Ez, inolaz ere. Nire ustez jendeak asko irakurtzen du. Baina beharbada piska bat gehiago saiatu beharko genuke.

**-Zer da jendeak gehien erosten duena?**

Egunkaria dudarik gabe. Baina kontutan izan behar

da loteria kioskoaren atal garrantzitsuenetariko bat dela. Ez da berdin saltzen urteko garai guztietan, baina Gabonetan, adibidez, jende asko etortzen da loteria bila.

**-Non kokatuko zenuke egunkaria erosten duten pertsonen batz besteko adina?**

Normalean 30 urtetik gorakoak dira; gazteek oso gutxi erosten dute.

**-Ba al dago ezberdintasunik emakume eta gizonezkoek erosten dituzten aldizkarien**

**artean?**

Bai. Emakumeek gehienetan "revistas del corazon" deituriko aldizkariak erosten dituzte. (Hola, Lecturas, Semana...). Gizonezkoek, ostera, aldizkari serioagoak aukeratzen dituzte, politika, ekonomia munduari buruzkoak... (Panorama, El Siglo, Cambio 16...).

**-Noiz arte ikusten duzu zeure burua kioskoan, ala beste proiekturen bat duzu?**

Gauzak orain arte bezala jarraitzen baldin badute, hemen segitzeko asmoa dut. Nahiz eta momentu hau txarra izan, langabezia asko egon... beti dago lana, jendeak etortzen jarraitzen du. Beraz, asko jeitsi beharko litzateke jendea, hau uzteko.

**-Komunikazio bide bat aukeratzekotan, zein hautatuko zenuke eta zergatik?**

Nire ustez, komunikabide egokienetariko bat irratia da. Informazio asko ematen du eta berriak etengabe errepikatzen dituzte. Gainera azken momentuko berriren bat balego, berehala jakin daiteke.

**Isabel Ansola**

## Pakito Linares

*ONCEko kupoi saltzailea*



- Noiztik ONCEko kupoiak saltzen? - Orain lau urte hasi nintzen.
- Egunero zenbat ordu lanean? - Sei. Goizeko 6,30etatik eguerdiko 12,30etara.
- Zenbat kupoi saltzen duzu egunero? - Astelehenetik ostegunera 400 inguru. Ostirale-tan zozketa berezia izaten da eta 900 bat kupoi saltzen ditut.
- Noiz da loteria gehien saltzen den sasoa? - Urte guztian antzera, hori bai, iraila eta urria oso txarrak dira, gutxi saltzen da.
- Loteria, bonolotoa, kinielak... - Loteria dudarik gabe.
- Zuk ere jokutzen al duzu? - Ez, ez daukat ohiturarik.
- Jokatu ezkerro ze sarirekin konformatuko zinateke? - Adibidez ostiraleko kuponazoarekin, 105 milioi pezeta.
- Zer egingo zenduke horrenbeste dirukin? - Oporrak hartu.
- Jokalari askok zenbaki batzuk beste batzuk baino nahiago dituzte, ezta? - Bai. Batzuk zenbaki fijoak dituzte eta beti horiekin jokutzen dute. Gauza kuriosoa ere gertatzen da: 8 edo 9an bukatzen diren zenbakiak dira jendeak gehien eskatzen dituenak.
- Eta zenbaki altuak ala bajuak? - Normalean altu samarrak eta 0 askorik gabekoak dira gustokoenak.
- Zeintzu dira zure zaletasunak? - Motorraren mundua asko gustatzen zait. Obretan lan egiten duten makinak, kotxe eta moto karrerak...
- Sekula multarik jaso al duzu motoan azkarregi ibiltzeagatik? - Multarik ez, baina Udaltzainen errieta edo bronkaren bat bai.
- Astebukaeratan martxa handia? - Bueno... bai.
- Taberna ala diskoteka? - Diskoteka.
- Jazz-berri ala Txitxarro? - Jazz-berri.
- Rokanrola ala bakalaua? - Bakalaua.
- Athletic ala erreala? - Erreala.
- Pertsonaia famatu estimatuena? - Angel Nieto motorista, munduko txapelduna izandakoa.

Aitor Zabaleta

## BERTSOTAN

### KORRIKA 8

Doinua: Pasaiko herritik

Nafarroan hasita  
Bizkaian bukatu  
tartean Euskal Herri  
oro zeharkatu  
bederatzi egunez  
ezin da gelditu  
Euskarak eskatzen du  
ta behar korritu.

Hilak hogeita hamaika  
asteazkenian  
Elgoibarrera dator  
hamarrak aldian  
ongiotorria dugu  
Sigmako zubian  
euskaltzale guztiok  
ez gera etxian.


Egun horretan jantzi  
denok praka motzak  
eta hasi saltaka  
bidaltzeko hotzak  
denon ahotan berriz  
euskal hots ta hitzak  
beharrezkoak. dira  
guztion laguntzak.

**AEK euskaltegiko talde bat**

### TINDATEGIA



Foruen Enparantza 4  
Tel. 74 00 91



### ASEGURUAK

San Bartolome 15  
Tel. 74 3037



### BERISTAIN

#### EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
  - Altxolako Ura
  - Codorniu
  - Lopez Ojeda ardoa
- ☎ 74 38 27

## Joku eskolarren herri arteko txapelketa hasi da

Joku eskolarrak azken fasera heldu dira eta aste honetan herri arteko kirol txapelketa ezberdinak jokatzen hasiko dira.

Larunbat goizean alebin eta infantil kategorietako herriko saskibaloio txapelketa beste herrien aurkako lehen partiduak jokatuko dituzte. Partiduak Elgoibarren izango dira, Ikastolako saskibaloio goi solairuan. Lau partidu jokatuko dira infantil eta alebinetan:

### Infantilak:

9,45 Ikas onenak - Almen A (neskak)

10,30 Pilar B - Txikia Kurutze (mutilak)

### Alebinak:

11,15 Ikas Lakers - Aranzadi A (neskak)

12,00 Ikastola - San Martin B (mutilak)

Bestetik, alebin kategoriako herri mailako azken futbol partiduak jokatuko dira Herri Eskolan:

9,45 Ikas Hotzak - Mendaro (mutilak)

11,15 Ikas Dodotis - Ikas Pul (neskak).

### Atletismoa

Unai Arrieta elgoibartarra 22. postuan gelditu zen pasa den aste-bukaeran Gasteizen korritu zuen 3.000 metrotako lasterketan, Joku Eskolarretako Euskadiko Kros Txapelketaren barruan.



Carmen Perea

## Brontzezko domina 800 metrotan

**-Zer suposatzen du zuretzat 800 metrotan, Espainiako 3ena izateak?** - Mogollon. Pasada bat da. Horrelako titulu bat eskuratzen dudan lehen aldia da. Oraindik ezin dut sinetsi. Erresponzabilitate handia daukat orain. Lasterketa garrantzitsu bat korritzerakoan gehiago eskatu beharko diot neure buruari.

### **-Gogor entrenatzen al duzu?**

- Egunero ordu t'erdi edo bi orduz. Eta asteazken eta igandetan Donostian entrenatzen dut.

**-Eta atletismoak denborarik kentzen al dizu?** - Askok. Seietan entrenatzen hasi eta etxera heldu orduko zortziak izaten dira. Afaldu eta ohera. Ikasteko denbora justua daukat.

**-Pista estaliko lasterketak bukatu ondoren, zer?** - Kanpoko txapelketak hasiko dira, baina apirila edo maiatza arte itxoin behar. Lehenengo Gipuzkoako txapelketa, ondoren, Euskadikoa eta gero Espainiakoa. Pasa den urtean 9.a izan nintzen Espainiako Txapelketan.

**-1.500 metrotan ere ibiltzen zara...** - Bai. 1.500 eta 800 metrotan. 1.500 metrotako hiru lasterketa egin ditut,



baina ez da niretzako lasterketa. Luzetxoegia da, ez zait gustatzen. 800 metrotako lasterketa hobeto egokitzen da nire ezaugarri fiskoetara. 800 metroak korritzeko abiadura behar da, azkarra izan. Bueno, erresistentzia apur bat ere bai. Baina 1.500 metroak erresistentzia lasterketa da.

**-Pista estalian egin duzun 2 minutu eta 17 segundutako marka hobetzerik ba al duzu?**

- Izan ere, hori baino marka hobea dut, 2,15sekoa. Nire helburua orain marka hori gainditzea da eta postu ona egitea, noski.

- Adina: 18
- Denbora librean? Kirola
- Ligerik? Ez
- Gogorik? Bai, baina astia kentzen du
- Maniarik kirolean: Ez. Baina Espainiako Txapelketan, finalerdian eta finalean jantzi berberak ipini nituen.

# LAB

langile abertzaleen batzordeak

Elgoibar San Inazio 1 tel. 74 38 86  
Eibar: Bidebarrieta 24. Tel. 11 21 99

Kide  
ileapaindegia

74 00 69

San Frantzisko, 40-1 ezk.

Txiriboga  
Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK

ETA OTARTEKOAK

Plaza merkatua 23-24

# Elgoibarko txirrindulariak datorren denboraldirako prest

Hasi da 1993. urteko txirrindularitza denboraldia. Elgoibarko Lagun Taldeak aurtengo txirrindulari talde ezberdinen aurkezpena egin zuen hilaren erdi aldera. 50 bat gaztek osatzen du Elgoibarko Lagun Taldearen plantilla, alebin, infantil, kadete eta jubenil kategorietan banatuta.



AITOR ZABALA

Eliz atarian egin zuten aurtengo ekipoaren aurkezpena

**P**asa den urtean 7 lasterketa antolatu zituen Elgoibarko Lagun Taldeak gure herrian eta, aurten 5 bakarrik antolatu ahal izango ditu. Txirrindulari elkarte honek 4 milioi t´erdiko aurrekontua du aurtengo denboraldirako eta Elgoibarren izango diren lasterketak antolatzeko 730.000 pezeta gastatuko ditu. Elgoibarko Lagun Taldea elkarteak 61 txirrindulari federatu, 7 monitore eta 3 kirol zuzendari ditu. Hauek gain, joku eskolarrak antolatzeaz arduratzen direnak daude. Eskoletako haurrak Trialsin egiten egon dira orain arte eta apirila eta maiatzean Ginkana egiten hasiko dira.

Neskei dagokienez, martxoaren 7an Bartzelonan izan zuten lehen las-

terketa. Pasa den urtean 4 neskako taldea osatu zuten baina aurten sponsorrik lortu ez dutenez, Zarautzekoekin batera talde bat osatu dute. Guztira 8 neska daude, lau elgoibartarrak direlarik. Hauek afizionatu mailan korritzen dute.

## Taldearen osaketa

Alebinen kategoria 12 txirrindulari gaztek osatzen du eta beraien mailoteetan *Elgoibarko Lagun Taldea* izena erabiliko dute. Infantiletan beste 12 korrikalari dago eta *Muebles de Cocina Olatz* etxearen babesia izango dute. Alebin eta infantilek 13 probatan parte hartzeaz gain, bi txapelketa burutzen dituzte: bata, taldekako erlojuaren aurkako txapelketa, maiatzaren 8an

Irunen izango dena. Txirrindularitza eskola bakoitzetik 5 edo 6 korrikalarik hartzen du parte. Eta beste txapelketa, pistetan burutzen dena da. Azken hau Zumaian korrituko da maiatzaren 22an. Infantilek eta alebinen martxoaren 27an, larunbatean hasiko dute denboraldia.

Lehen urteko kadeteek hasi dute dagoeneko aurtengo denboraldia. Kategoria hau 9 txirrindulari osatzen du eta *Citroen Zaer Motor* etxearen babesia izango dute. Martxoaren 7an Ibaetan izan zuten lehen laisterketa eta uztailaren 4ean korrituko dute Zarautzen azkena. Lasterketa guzti hauetan lehen 10 postuetan gelditzen direnak Espainiako txapelketara joango dira. Pasa den urtean Alex

Galarraga elgoibartarrak Espainiako Txapelketan parte hartu zuen eta Euskadiko Txapelketan 4. postua lortu zuen.

Bigarren urteko kadete mailan dauden 8 txirrindulariek *Muebles de Cocina Olatz* etxearen izena defendatuko dute. Denboraldia martxoaren 13an hasi zuten, Beasainen eta uztailaren 25ean bukatuko dute Azpeitin izango duten lasterketarekin.

Azkenik, jubenilen taldea da txirrindulari kopuru handiena duena. 16 gaztek osatzen du talde hau eta Durangoko *Ciclos Iturriaga* etxearen laguntza izango dute. Lehen laisterketa martxoaren 14an burutu zuten eta urriaren 12a arte ibiliko dira Gipuzkoako errepideetan.

# Konporta: edozertarako zabalik dagoen elkarte

Bi kuadrilen batuketatik sortutako elkarte da Konporta. Bata, Zazpi izenaz zen ezaguna herrian eta beste kuadrilak ez omen zuen gaitzizenik. 1979. urtean Elgoibarko beste elkarte batetatik alde egindako kuadrila zen bigarren hau eta Zazpikoekin bat eginda Konporta sortu zuten.



Konportako bazkide batzuk afalosteko kafea hartzen.

**K**onporta izena aski ezaguna da elgoibartarrantzat, baiña askok ez du jakingo izenaren nondik norakoa. Aspaldi, edo ez hain aspaldi, elkarte dagoen toki inguruan Goiko-Errotako konporta zegoen. Tokiaren izaerari izenak eustearren Konporta deitu zioten elkarteari.

Elkarte sortu zutenean, helburu batekin izan zen: kultura mailan herriko edozein ekintzatan laguntzea. Bertako bazkide batzuek garai batean Trinitade jaietan antolatzen zen nagusien tanborradan hartzen zuten parte. Orduan *Elgoibarko Izarra* Kultur Elkarteak zuen tanborradaren ardura eta Konportako zenbait bazkidek haren antolamenduan laguntzen zuten. Beraiek ematen zuten laguntza afariak prestatzen, lokala tanborradarako jatzeko eta horrelako gauzetarako izaten zen. Elgoibarko Izarrak tanborrada

antolatzeari utzi zionean, Konportakoek hartu zuten hura organizatzeko ardura. Tamalez, urte batzutan antolatu ondoren, egiteari utzi zioten. Aurreko egunetako entsaiuak, tanborradan jotzen zuen jende guztia koordinatzea eta beste gauza asko zirela eta utzi zuten tanborrada alde batera. Beraiek antolatu zuten bost urteetan zehar. Kalera atera aurretik, Konportan afaldu eta jazten ziren. Tanborradako trajeak, gehienak behintzat, alokatu egin behar izaten zituzten, Udaletxeak erosi zituen tanborrilerokan kasaka eta gorroak ezik. Batzutan Donostiako eta Azpeitiko elkarteei eskatzen zituzkien trajeak. Tanborrada

aurretik urtean zehar hainbeste diru aurrerratu behar izaten zuten tanborradako gastuei aurre egiteko.

Konporta kideak herriko beste elkarteei laguntzeko prest daude beti. Esaterako, Elgoibarko Klub Deportiboak egiten dituen afariak Konportan egiten dira. Janari eta antzerako prestakuntzetan laguntza emateko prest daude beti. Gainera, janari gaitan, esperimendu zalea omen da bertako sukaldaria.

Konporta elkartean ez da soziedade arruntetan adinako mugimendurik izaten. Astean zehar apenas jenderik ibiltzen den eta astebukeratarako afarietarako erabiltzen dute, batez ere.

## Udaberriko postrea

### OSAGIAK:

- (12 laguntzako)
- Mailukiak
- Laranja
- Azukrea
- 8 yogurt natural
- Eztia
- Kilo erdi bainilazko izozki

### NOLA EGIN:

Mailukiak garbitu eta zatitu ondoren bezperaz, azukrea eta laranja-urarekin jarri, gustu piska bat hartu dezaten mailukiek. Egunean bertan, yogur naturalekin nahastu. Eztia gehi-

tu eta dena nahastu. Ondoren izozki kilo erdia mailukien nahasteari gehitu eta hozkailuan sartu. Pare bat orduz, gutxienez, hozkailuan eduki eta hotz dagoela atera.

## FITXA TEKNIKO

- Sorrera urtea:** 1979
- Bazkide kopurua:** 41
- Urteko kuota:** 24.000
- Presidentea:** Manuel Zubiaurre
- Berezitasuna:** Elkarte kulturala
- Helbidea:** Trenbide kalea



# Antzerki Tailerrak lehen urratsak eman ditu

**T**aupada antzerki taldekoak diren Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañagak urte osoan funtzionatuko lukeen antzerki tailerren proiektua aspalditik zuten buruan. Tailerrak urte guztian zehar funtzionatzeko baliabideak falta zitzaizkiela eta, proiektu sinpleagoa egin zuten. Udalak proiektua onartu ondoren, lanari ekin zioten.

Batxillergo Institutu eta Lanbide Heziketarako irakasleekin eta gurasoekin egon ondoren eta guztien aldetik jarrera positiboa zela ikustean, Gabonak arteko bi hilabeteko tailerra antolatu zuten. Bi hilabete hauetan 24 gazteko bi talde sortu ziren, 15 eta 18 urte bitartekoak. Denbora honetan talde dinamika, oreka, deshinibizioa, sensibilizazioa, espresio eta horrelakoak landu dituzte. Norberaren burua ezagutzeko estimuloak eman eta beraiek beren burua deskubritzea izan da

Edurne eta Jose Marik lortu nahi izan dutena. Zentzumen guztiak landu eta norberaren gorputz eta izakera lantzea funtsezkoa da edozein obra antzezteko.

Bi hilabete hauen ostean, urtarrila eta ekaina bitartean beste ikastaro bat ematen hasi dira. Orain sei ikasle daude eta errazagoa da talde txiki honekin lan egitea. Tailerlean dabilzan ikasleak oso gustora daude eta, Jose Mari eta Edurnek esan digutenez, zerbait egiteko benetako interesa dute.

## Maiatzerako lehen fruitua

Izan ere, eskuartean duten obra bat antzezteko asmotan dabilza antzerki tailerrekoak. Aste honetan obrako pertsonaien analisi psikologikoarekin hasi dira, pertsonaia bakoitzaren izakera eta pentsamendua ezagutuaz. Horregatik beharrezkoa izan da lehendabizi norbere burua ezagutzea. Obra hau tailerlean dihar-



Antzerki tailerrekoak klase bitartean.

duten sei ikasleek antzeztuko dute Jose Mari eta Edurneren zuzendaritzapean. Antzeztuko duten obrak "Los jardines sumergidos" izenburua du eta erdaraz idatzia dagoenez, lehendabizi itzuli egin behar izan dute. Horretarako dramaturgo eta filologoa den baten laguntza eduki dute. Obra benetazko gertaera batean oinarritua dago eta gaia oso gaurkoa da: gazteak, familia eta drogak.

Antzezlana prestatzeko hilabeteko epea dute,

maiatzean Eibarren izango diren ikasleentzako antzerki topaketan estreinatu nahi baitute. Horrela ez balitz, Elgoibarren ekainean estreinatuko lukete.

Datorren urterako antzerki tailerarekin aurrera egiteko asmoa dutela esan digute Taupada antzerki taldeko Edurnek eta Jose Marik. Izan ere, urte osoan zehar, etenik gabeko tailerra antolatzea gustatuko litzaieke datorren urterako.

**GORRINO**  
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

**GURBIL** *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua  
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

**27** Larunbata

16,15 FUTBOLA

Elgoibar-Torrelavega  
Tokia: Lerungo futbol zelaia

19,30 ZINEA

"Belle Epoque"  
Zuzendaria: Fernando Trueba  
Aktoreak: Jorge Sanz, Maribel Verdu, Ariadna Gil, Miriam Diaz Aroca.

**Z I N E A**

"Belle epoque"

1931. urteko udaberrian Fernando, ejerzitoko desertore gazte batek pintore bat ezagutzen du: Manolo. eta lagun minak egiten dira. Egun batean Fernandok alde egin behar izango du Manoloren alabak aitarekin egun batzuk pasatzera bait datoz. Fernando, Manoloren alabak ezagutzean bertan gelditzen da. Fernandok, Manolo eta bere alabekin pasako dituen maitasun, tristezia eta plazerrezko egunak kontatzen ditu pelikulak, bere bizitzako "belle epoque" a izango dena.

**Z I N E A**

**28** Igandea

12,00 TXISTU KONTZERTUA  
Ignacio Bereciartua musikaeskola ikasleak eta Txistulari Udaltaldea.

Tokia: Udal Areto Nagusia

16,30 ZINEA

"La fuerza de la ilusión".

19,30 ZINEA

"Belle Epoque"

**29** Astelehena

19,30 ZINEA

"Belle Epoque"

**30** Asteartea

9,30 eta 15,00 IRUDI BIZIAK:  
ZINEA

"Colmillo Blanco"

O.H.O.ko goi zikloko ikasleentzat

19,30 ZINEA

"Belle Epoque"

**31** Asteazkena

15,20 KORRIKA TXIKIA  
Maalatik irten eta Plaza Handian bukatuko da.

15,30 KANTALDIA

Joseba Tapia  
Tokia: Kultur etxe  
Antolatzailea: Udal Euskaltegia

15,45 BERTSOLARI GAZ-  
TETXOEN SAIOA

16,00 GOZOKI BANAKETA  
eta korrika txikiari bukaera.

18,00 KALE ANIMAZIOA  
kukuma taldearekin.

19,00 TRIKITILARI KALEJIRA

20,00 AFARIA

21,00 MAUXITXAREKIN  
KALEJIRA

22,00 ONGIETORRIA  
KORRIKARI

Sigmako Zubian.

**Aterpe**



Tel: 74 25 95

**Afari merkeak**

- \* Kazuelatxoak
- \* Oilasko erreak (aurrez eskatu)

**Urtebetetze gonbiteak**

- \* Txokolata eta pastelak

**Arratsaldea pasatzeko**

- \* Karta joko eta berbetarako giro aparta

*Aurrez enkargatu ezkerro, hobe!*



**24 orduz  
zuekin**

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar  
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

**Etxebizitzak**

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.  
**Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 telefonora.**

**Lana**

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.  
**Carolina 74 44 51.**

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.  
**Tel.: 74 13 11. Javier**

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.  
**Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.**

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.  
**Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.**

**Salerosketak**

"Asolo Super-soft" (42zbk.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,  
**Aritza 74 05 90.**

KARABANA bat salgai. 4-5 pertsona. Prezio interesgarria.  
**Tel: 74 14 25 (Gauzez)**

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.  
**Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko. Prezioa negoziatzeko.  
**Aitor: 74 22 74**

18 belozidatedun Mountain Bike bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.  
**Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 13 35**

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako moto-rra. Neurriak: 3 x 1.  
**Prezioa: 125.000 pta. Tel.: 19 92 46 (Juanra)**

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 ppta.  
**Alberto: 74 14 94**

**Kontaktuak**

ZOKOAN musika taldeak entsaiatzeko lokala behar du. Lokala edo garaje hutsa alokatuko genuke. Urgentea da.  
**Tel: 74 15 74. Gerardo**

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan **lokalik baldin baduzu, deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.**

**INTELIGENTEENA LOGIKOENA DA**



**Leihoetako zirrikitu eta ateetatik sartzen zaizun hotz, zarata, hauts, aire korrante eta abarri.**



**OBRARIK GABE**

**glas control**

Ubitarte 7. ELGOIBAR

**GASA ELGOIBARRERA DATOR.**  
Kalefazioa ipintzeko asmotan bazabiltz edota dagoeneko ipinita badaukazu, logikoena, berotu aurretik zirrikitu guztiak tapatzea da.

Zure egurrezko leihoak aldatu gabe berorik ez galtzeko,  
**GLAS CONTROLek, altzairu inoxidablezko burleteak AURKEZTEN DIZKIZU.**

**3,ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE**

**74 30 94 - 74 43 54**

# SEAT IBIZA BERRIA



TEKNOLOGIA ALEMANA

**ZATOZ  
BERRIKUNTZA  
GUZTIAK  
DESKUBRITZERA**

**SEAT**  
*Bai!*

**SEAT**

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 . Tel. 11 36 42 Eibar